

LITERATURA IKERKETA BATZORDEKO LANEN LABURPENA

2002-V-15

Lourdes Otaegi, idazkaria

Jakina denez, Literatura Ikerketa Batzordea eratu eta hiztegiaren hiztegi-sarrerak lantzen hasi zen 1993an. Orduz geroztik batzordekideek idatzi dituzten hiztegi-sarreraren biltze, zuzentze edo bateratze lana eta hizkuntza nahiz erredakzioaren orrazketa premiak betetzeko zeregina eman dio Euskaltzaindiaren Zuzendaritza Batzordeak LIB batzordeko idazkaria den Lourdes Otaegi Imazi, eta horretan dihardu Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren ardurapean, lan-jardunaldi erdiz 2001-2002 ikasturtean zehar.

Hiztegiak izango dituen 623 hiztegi-sarreretatik (19 artikululu luze, 97 ertain eta 507 laburretatik) 537 eginik zeuden 2001 urte amaieran eta 86 falta idazteko. 2002 urtean amaituko direla espero da, atzerapenik ez bada. Horregatik, dagoeneko eginiko artikuluen biltze eta zuzentze lana bizkortu eta suspertu nahi da. Batzordeak lanean dirauen artean egitea hobesten da, horrela partaideen arteko harreman zuzen eta aktiboak dirauenez, hobeki ekin ahal izango zaiolakoan hiztegi-sarreraren edukiaren bateratze lanari eta erredakzioaren orrazketari.

Horretarako, lehenik, dagoeneko osatuta dauden hiztegiaren atalak hartuz eta besteak osatu ahala, honako prozedura hauxe burutuko da:

1. **Artxibo informatikoen biltegia osatu**, horretarako falta diren testuak artxibo informatikoa bilakatzeko prozesuari ekin zaio.
2. **Bilera aktetan dauden zuzenketak begiratu** eta artikuluetan jasota dauden ala ez egiaztatu eta bertsio berrituen biltegia eratu.
3. **Testuan egin daitezkeen bestelako hobekuntzei ekiten zaie jarraian**. Hobekuntza horiek lanaren egiturari, edukiari nahiz idazkera eta erredakzioari buruzkoak izaten dira.
4. Ondoren adieraziko diren epetan adieraziriko berrikuste-prozesu hori eta ondoren, **testuak inprimatu eta batzordeari aurkeztuko zaizkio atalez atal**, behin-behineko bertsioa den horri behin-betiko onespena eman diezaion, beharrezko diren zuzenketa eta oharrak jaso ondoren.

5. Hiztegiiko sarrera guztiak idatzirik, berrikusirik eta osaturik daudenean, hiztegiaren hitz-sarrereren zerrenda proposamena egingo zaio Hiztegi Batuaren Batzordeari eta, haren oharrak eta oniritzia jasotakoan, finkatutzat emango da literatura hiztegia eta haren araberrako azken zuzenketa prozesuari ekingo zaio, terminologia eta erredakzio aldetiko azken taxua emateko helburuz.

Prozesua beteko duten atalen egunkaria honela antolatuta da:

1. epea: **Historia eta Estetika**

(3 artikulua luze, 27 artikulua ertain eta 72 artikulua labur)

2. epea: **Erretorika**

(4 artikulua luze, 8 artikulua ertain eta 114 labur)

3. epea: **Antzertia**

(1 artikulua luze, 6 ertain eta 88 artikulua labur)

4. epea: **Metrika eta Ahozko literatura**

(6 artikulua ertain eta 95 artikulua labur)

5. epea: **Kritika literarioa (osatu gabea)**

(11 artikulua luze, 50 ertain eta 138 labur)

6. epea: **Atal guztien hiztegi sarrereren zerrenda proposamena egin Hiztegi Batuaren Batzordeari** eta azken egokitzapena terminologia finkatzeari eta erredakzio bateratzeari dagokionez.

Literatura Ikerketaren Batzordearen idazkaritzako lehenengo hiru epeak 2001-2002 ikasturtean zehar betetzeko helburua dugu begiz jota. Azken hiru epeak 2002-2003 ikasturtean osatzekoak dira.

Zuzendaritza Batzordeari urrian aurkezturiko egitasmoaren arabera lehen epea betetzeko xedeaz, horretako honako urrats hauek eman dira:

1. epea: Historia eta Estetika

(3 artikulua luze, 27 artikulua ertain eta 72 artikulua labur)

- Juan Krutz Igerabide, Jon Kortazar eta Luis Mari Mujikak landuriko 102 (3 artikulua luze, 27 artikulua ertain eta 72 artikulua labur) hiztegi sarrera biltzea zen lehen jomuga, horretarako, egileekin banak hitz egin, bildu eta bertsio informatikoen eskea egin zitzairen. Batz bestea, 10 artikulua falta zirenean eta LIB Batzordearen artxiboetatik paperezko bertsioak atera eta bertsio informatikoa idatzi da. Honela finkatu zen irailean zehar atal honetan landu beharreko corpusa.
- Ondoren, hiztegi-sarrera horiek aurkeztu ahal izandako harrera eta iruzkinak batzordeak eginiko aktetan jasotzen direnez, azken hauek banan-banan atera eta artikulua berriztatu diren konprobatu da, eta egileari ohartarazi zaio zuzenketa egin beharra bazegoen.

- Bigarrenik, txostenen erredakzioari eta egiturari buruzko oharrek egiteari ekin zaio, izan ere egile bakoitzak bere molde, ordena eta hizkeraz jantzi baititu artikulukoak, baina hiztegi bateratua burutzekotan, erredakzioaren hainbat ñabardura berdindu beharrek dira, hala nola:
 1. Informazioa emateko moldea. Egitura honetara ekartzen saiatu naiz hiztegi sarrera horiek:
 - a) Definizioa eta hitzaren jatorria edota adierak, erduz horniturik hala badagokio.
 - b) Diakronia eta literatura orokorraren arloan izan duen garapena.
 - c) Euskal literaturari buruzko aipamena, ereduak eta egileak aipatuz.
 2. Bestetik, hamar urte hauetan aldatuz eta finkatuz joan den euskara batuaren eredura moldatu dira artikulukoak, eta hizkuntzaren zuzentasunaren eta egokitasunaren aldetik egin beharreko oharrek egin.
 3. Erredakzioari dagokionez, hizkera neutralizatzeko eta objektibatzeke saioa egin da, lehen pertsona singularra eta plurala baztertuz eta aditzen arloan, aditz hipotetikoaren nahiz presente historiko eta antzerakoaren erabilera zainduz. Gisa berean, esaldi luzeegiak zatitzen eta ideiak argitasunez adierazteko adieraz moldeak proposatu dira.
 4. Horretaz gain, iritzi pertsonalegiak edota zehaztasun nahiz froga gutxiagokoak egileei ohartarazi zaizkie.
- Bilketa lana egin eta lehen azteraldia egin ondoren egileekin bilerak egin dira lan horiek berrius ditzaten eta eginiko oharrek argitzeko. Lanbilera horiek banaka eta bakoitzaren lanei lehen azteraldia eman eta gero egin ditut:

Urriaren 19an: J. K. Igerabiderek Donostiako ordezkari izan.

Azaroaren 23an J. Kortazarrek Donostiako ordezkari izan.

Abenduaren 27an L. M. Mujikarekin Donostiako Irakasle Eskolan.

Bilera horietan lehen azteraldiaren arabera zuzenketa eta oharren berri eman zaie egileei eta urtarilerako euren azken bertsioa biltzea espero da.

Gisa berean, dagoeneko eginak dauden lanen biltze eta informatizatzeko prozesua dinamizatu da batzordekideei Donostiako ordezkari izaneko ordezkari zentralen sortu den LIB Batzordearen lanen biltegi informatikoa osatzen joateko.

Lehen hiruhilekoan eginiko lanari jarraituz, Juan Kruz Igerabidek urtarilaren 18an bidali zuen bere artikuluen bigarren bertsioa eta hiztegi alorreko zertzelada bat edo beste gora behera, behin-behineko itxura hartua dute. Luis Mari Mujikak Otsailaren 1ean entregatu zituen bigarren bertsio lanak eta horrenbestean behin-behineko bertsioa osatua dute. Jon Kortazarrek, aldiz oraindik eskuartean ditu lehen hiru hilabeteko eginiko zuzenketa eta bertsio berriak.

2. epea: Erretorika (4 artikululu luze, 8 artikululu ertain eta 114 labur)

Urtarrilean **Xabier Altzibarrek** landuriko txostenen bilketa lanari ekin zitzaion. Gehienak erretorika atalari dagozkio, beste batzuk Kazetaritza generoari buruzkoak dira eta prosaren alorreko beste zenbait ere baditu. Hona hemen emaniko urratsen zehaztapena:

Zerrenda osatu eta egileak urtarrilaren 20an bidali zituen dokumentu guztiak. Hiztegi sarrera horiei dagozkien aktak hartu egin zitzaizkion gomendioak jaso dituen eta eskaturiko zuzenketak egin diren konprobatu.

Ohiko prozesua laburtuz, azteraldi honetan epe hauek burutu ditut:

- Irakurraldi soila egin: hiztegi eta ulertze mailaz ongi jabetzeko. Irakurri eta «xuxen»z baliatuz eguneratu egin nituen zenbait gorabehera ortografiko, morfosintaktiko eta beste. grekeraz>grekoz, hitz-joku> hitz-joko, errez>erraz, sintasi>sintaxi, neurtitzezko poesia> neurtitza edo poesia neurtua...
- Arlo jakin batekoak diren artikuluei sistematizazio modu bat ematen saiatu: Esaterako erretorikaren alorreko gai guzietan, etimologia, definizioa eta sailkapenari buruzko informazioa ordenatu behar zen. Eta euskal literaturaren alorreko adibideak osatu.
- Hiztegi gaiak aipagarriak dira: esaterako «Figura» ordezkatu egin dut «irudi» hobetsiz, inoiz edo behin «figura» ere utzi dut, baina beti beste aldean duenean. Baliabide multzo nagusiak honela izendatu ditut: Dikzio edo Hitz-irudiak, Pentsamendu-irudiak eta Tropoak. Bestalde, Dikzio edo hitz-irudien artean bi sail nagusi: Errepikapen-irudiak eta Egitura-irudiak. Bestalde, zenbait hitz oraindik zalantzan daude, hala nola: litotes/litote, calembour/ calambour/calambur/ kalanbur, klise/ klixte, kolumna/zutabe, kazeta/egunkari...
- Informazioa emateko era: Baliabide erretorikoen taula bat egin da, gida izateko erabiltzailearen gida izateko helburuz: ERRETORIKAn aipatzen diren baliabide guztiak bilduz. Taula horretan, grekoz, latinez eta euskarazko baliokideak (balidin badaude) edo sinonimoak esplizitatzen saiatu naiz.
- Erredakzio gaiak: Artikuluen sarrerak (ia guztiak) aldatu ditut, literatura hiztegi batzuk begiratu eta gero. Artikuluen sarreretan, bi datu sartu ditut sistematikoki:
 - etimologia grekoa eta latinoak
 - sailkapen orokorrean zein multzotan sartzen diren eta zein beste irudirekin duen zerikusia.

6. Edukiak: Aktetan zeuden ohar guztiak errepasatu ditut eta batzuk aintzakotzat hartu eta osatua dago lana. Bestalde, erretorikaz idatzi diren artiku-

lu guztiak (Altzibarrenak eta besteenak) batera aztertu ditut eta denak berdintzen eta koordinatzen saiatu naiz.

7. Estilo aldetik zenbait moldaketa egin dira artikuluetan, tankera informatio eta neutroaren zerbitzutan. Aipamen ironikoegiak, pertsonalegiak edo subjektiboak ekidin nahi dira.

8. Martxoaren amaieran itzuli nizekion lehen azteraldia amaituz.

Batze eta aztertze lanaren egoera martxoaren amaieran honako zen:

Osaturiko hiztegi atalak: Erretorika eta Literatur Historia.

Bildutako egileak: J.K. Igerabide, L.M. Mujika, J. Kortazar eta X. Altzibar: 201 hiztegi sarrera guztira.

3. epea: Antzertia

(1 artikuluz luze, 6 ertain eta 88 artikuluz labur)

Hirugarren epean, Antzerki arloko hiztegia osatzea da helburua Patri Urkizuk eta Txomin Peillenek osaturiko atala. (94 artikuluz guztira: artikuluz luze 1, 6 ertain eta 88 artikuluz labur). Ohiko prozeduraren arabera, artikuluz zerrendak bidali, aktak atera eta lehen azteraldi osoa eman ondoren, maiatzaren 19ko Literatura Batzordearen bileran aurkeztu ziren atal honi zegozkion zenbait nomenklatura arazo:

- a) Lehen multzoa antzerkia egiteko lekuaren izendapenei buruzkoa da: antzezleku, antzertoki, agerleku, agertoki, eta bestetik antzoki, eszena, eszenatoki, eszenategi, eta abar. Proposamenak hiru hitz nagusi hautatzea da: antzokia, eraikuntza izendatzeko, bestetik aktoreen mugimenduen gunea agertokia izatea eta azkenik, eszena ere onartzea bi zentzu dituzenez (agertokia, antzerki ekitaldia osatzen duten agerraldiak). Gainerakoak hitz nagusietara igortzea proposatzen da, hots, **agertoki eta antzokira**.
- b) Bigarren multzoa herri-antzerkiari dagokio, hots, galarrotsak, zintzarrotsak, kabalkadak, karroxak, tobera-mustrak eta astolasterrak bezalako antzerti motak biltzen dituen multzoari. Izen generikorik ez dago gure hiztegian, eta horren ondorioz, bi joera nabaritzen da dagoeneko idatzita dauden artikuluetan: alde batetik, horietako bakoitzaren deskripzio xehea egiten da, aldiro denek komuna duten jatorrizko osagaia, bigarren ezkontzaren aurkako herri arau moralaren azalpena emanez, bestetik, antzerti mota hauen hitz generikotzat «astolasterrak» terminoa erabiltzen da beste artikuluz multzo batean eta erabilera honen badu tradizioz euskal literatur historietan (Mitxelena 1957, Juaristi 1987, Urkizu 2000). L. Otaegik batzordeari eginiko proposamena honakoa izan da: euskal hitz generikorik ez dagoenez eta zenbaitetan erabili dena (*astolasterrak*) nahasgarria gertatzen denez,

generikotzat «Xaribariak» terminoa hartzea, frantses mailegua, antzerki horiek azaldu eta deskribatu dituzten autore frantsesek erabilitako terminologia geureganatuz; izan ere, dagoeneko hainbat euskal literaturaren historiatan, liburu eta artikulua teorikotan, testuliburutan, hiztegi eta entziklopedietan erabiltzen baita adiera hori emanez. Eztabaidatu ondoren, batzordean erabaki da «xaribariak» hitza sortzea hiztegi sarrera generikotzat, «xaribari fartsak» hiztegi sarrera sortzea «Tobera-mustrak», eta «astolasterrak» biltzeko eta «astolasterrak» terminoa Zuberoako antzerki mota jakin eta konkretua izendatzeko erabiltzea. Ondorioz, multzo honekin zerikusia duten hiztegi sarrera guztiak nomenklatura honetara egokitzea erabaki da.

Antzerki atalaren moldaketa eta lehen azteraldia ekaineko 21eko bileran aurkeztu da.

Uztaileko zereginari dagokionez, Erretorika eta Literatur Historiaren atalak erabat osatzeko Patxi Salaberri, Gorka Aulestia eta Juan Mari Lekuonaren lanak biltzea eta lehen azteraldia ematea falta da, bestalde, Metrika eta Ahozko literaturari atalari dagozkion 111 artikulua informatizatu eta aztertu ahal, Genero eta Azpigeneroak atala ere osatuko da, gehiena bildua eta aztertu da dagoeneko, zenbait artikulua luze eta labur izan ezik, oraindik idatzi gabe daudenez (10 inguru).

Hurrengo ikasturterako egiteko geratuko dira Metrika eta Ahozko Literatura (111 artikulua) eta Poetika, kritika eta narratologiari dagozkion atalak izango dira (175 artikulua) eta ikasturte honetan jorratu diren artikuluen inguruko xehetasun eta azken ukituen epea.